Abaltzisketa-Baliarrain-Orendain elkarteko Idazkaritza lanpostua bitarteko funtzionario batek betetzeko hautaketa-prozesua

(2026/01/07ko GAO. AZ: 2026/02/06ko GAO):

Hamalaugarren postuan gelditu dena proposatzea lanpostua betetzeko.

Goian aipatu hautaketa-prozesuan hamahirugarren postuan gelditu den Miren Jasone Telleria Arrizabalaga hautagaiak 2026/07/15ean uko egin dionez goian aipatu Idazkaritza lanpostua betetzeko bitarteko funtzionario izendatzeko proposamenari, Epaimahaiak zera erabaki du:

Hamalaugarren postuan gelditu den Anne Egues Corredera hautagaia proposatzea lanpostua betetzeko, eta 3 egun balioduneko epea ematea hautaketa-prozesua arautzeko bederatzigarren oinarriaren 1. zenbakian jasotako dokumentazioa aurkezteko; eta ohartaraztea, ez badu dagokion dokumentazioa aurkezten edo uko egiten badio izendapen-proposamenari, bederatzigarren oinarriaren 2. zenbakian eta hamaikagarren oinarriaren 4. zenbakian aurreikusitako ondorioak izango dituela.

Dokumentazioa aurkezteko epea izango da: 2026ko uztailaren 17tik 21era artekoa.

Epaimahaiko idazkaria

Firmado por ARRIZABALAGA GAINZA IRANTZU - ***5611** el día 16/07/2026 con un certificado emitido por AC FNMT Usuarios